TOLOSAKO UDALA

JO20_001

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA
OBRA-ZUZENDARITZA ZERBITZUEN KONTRATUA ARAUTUKO DUENA TOLOSAKO LASKOAIN KALEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO-PROIEKTUA EGITEKO OBRETAN

Aurkibidea:

I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

1. PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUAREN XEDEA
2. KONTRATUAREN XEDEA
3. URBANIZAZIO-PROIEKTUAREN EGILEAK ETA EDUKIA
4. KONTRATUAREN ARDURADUNA
5. ZUZENDARI FAKULTATIBOA
6. ZUZENDARI FAKULTATIBOAREN LANEN IRISMENA
6. ALCANCE DE LOS TRABAJOS DEL DIRECTOR FACULTATIVO
    - 6.1. Zuzendari fakultatiboaren eginkizun orokorrak
    - 6.2. Zuzendari fakultatiboaren lanen deskribapena
        - 6.2.1. Obra hasi aurretik
        - 6.2.2. Obraren hasieran
        - 6.2.3. Obra egin bitartean
        - 6.2.4. Obra amaitu ondoren
        - 6.2.5. Obra-kontratua suntsiaraztea
    - 6.3. Obraren kontrol geometrikoa
    - 6.4. Obra-bilerak eta txostenak
7. BALIABIDEEN ZUZKIDURA. ZUZENDARI FAKULTATIBOAREN LANTALDEA
8. OBRA-AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA

II. DOKUMNETAZIO TEKNIKOA. ZENBAKITAN EDO EHUNEKOTAN BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

1. MEMORIA TEKNIKOA
    - 1.1. Proiektuaren edukia aztertzea
    - 1.2. Proposamen metodologikoaren deskribapena
    - 1.3. Proiektua gauzatzean ingurumen-irizpideak sartzea
2. ESLEITUTAKO LANTALDEA

III. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA. ZIFRATAN EDO EHUNEKOTAN BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

1. OBRA-ZUZENDARIAREN ESPERIENTZIA

I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

1 PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUAREN XEDEA

Plegu honen xedea da Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio-proiektua gauzatzeko obretan obra-zuzendaritzako zerbitzuen kontratuko lanak deskribatzea eta definitzea, eta kontratua arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea.

2 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da obra-zuzendaritzaren zerbitzua ematea, Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio-proiektuan definitutako egikaritze-obretan, baldintza teknikoen agiri honetan definitutako zuzendari fakultatiboaren berezko eginkizunak betez.

3 URBANIZAZIO-PROIEKTUAREN EGILEAK ETA EDUKIA

Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio-proiektua DITECO Ingeniería enpresak idatzi zuen 2019ko uztailean.

Proiektuaren helburua Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko azpiegiturak eta zoladura berritzeko obrak zehaztea da.

Proiektuak honako dokumentazio hau jasotzen du:

1 DOKUMENTUA: MEMORIA Y ANEJOS

- Bide-zoruen kalkulua
- Trazadura
- Plangintza
- Argiteria
- Eragindako zerbitzuak
- Kalitate-kontrola
- Hodakinen kudeaketa
- Irisgarritasuna

2 DOKUMENTUA: PLANOAK

3 DOKUMENTUA: BALDINTZA-PLEGUA

4 DOKUMENTUA: AURREKONTUA

5 DOKUMENTUA: SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERKETA

4 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Tolosako Udaleko kontratazio-organoak teknikari kualifikatu bat izendatuko du zerbitzu- eta obra-kontratuen arduradun gisa. Kontratuen betearazpena gainbegiratuko du, akordioak hartuko ditu eta hitzartutako prestazio zuzena bermatzeko beharrezko jarraibideak emango ditu.

Kontratuaren arduradunak koordinazio-lana egingo du, eta zuzendari fakultatiboaren irizpide eta jarduera-ildo nagusiak ezarriko ditu. Zuzendari fakultatiboak beharrezko xehetasun-lanak egingo ditu.

Ondorioz, kontratuaren arduradunak ez du erantzukizun zuzenik edo solidariorik izango zuzendari fakultatiboak bere eginkizunak betetzean hartzen dituen erabaki eta jarduketen gainean, erantzukizun tekniko eta legal osoarekin.

5 ZUZENDARI FAKULTATIBOA

Zuzendari fakultatiboa titulazio egokia eta nahikoa duen pertsona da, eta kontratatutako obra behar bezala egiten dela egiaztatzeko eta zaintzeko ardura zuzena du.

Kontratuaren esleipendunak izendatuko du zuzendari fakultatiboa, baldintza teknikoen agiri honetako baldintzen arabera. Zuzendari fakultatiboa izango da solaskidea eta arduraduna kontratazio-organoaren aurrean.

6 ZUZENDARI FAKULTATIBOAREN IRISMENA

Zerbitzu-aldia kontratua formalizatzean hasten da, eta barnean hartzen ditu obrak hasi aurreko prestaketa-jarduketak, obrak egin bitarteko jarduketak eta obra abian jarri ondorengo jarduketak, obra-kontratua amaitu arte, berme-aldia amaitu eta likidazioa egin ondoren.

Zuzendari fakultatiboaren eginkizunak dira:

• Baldintza-Plegu honetan zehaztutakoak

• Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoak, eta, bereziki, 237. artikulutik 246. artikulura bitartekoetan ezarritakoak.

• Errepideetako eta zubietako obretarako baldintza tekniko orokorren Pleguko 101.3 atalean zehaztutakoak. (PG3).

6.1 Funciones generales del Director Facultativo

- Kontratistari eskatzea, zuzenean edo bere agindupeko langileen bidez, kontratu-baldintzak bete ditzala.
- Obrak onartutako proiektuaren arabera edo behar bezala baimendutako aldaketen arabera egingo direla bermatzea, eta lan-programa betetzen dela bermatzea.
- Dagozkion preskripzio-agiriek bere erabakiari uzten dizkioten baldintza teknikoak definitzea.
- Planoen interpretazioari, materialen baldintzei eta obra-unitateak gauzatzeari dagokienez sortzen diren gai tekniko guztiak ebaztea, betiere kontratuaren baldintzak aldatzen ez badira.
- Obretan sortutako gorabeherak edo arazoak aztertzea, kontratua behar bezala betetzea eragozten dutenak edo kontratua aldatzea gomendatzen dutenak, eta, hala badagokio, dagozkion proposamenak izapidetzea.
- Egoki diren jarduketak proposatzea, erakunde ofizialek eta partikularrek beharrezko baimenak eman ditzaten obrak egiteko eta obrek ukitutako ondasunak okupatzeko, eta obrekin zerikusia duten zerbitzuek eta zortasunek sortzen dituzten arazoak konpontzeko.
- Larrialdi- edo larritasun-kasuetan, bere gain hartzea abian diren eragiketa edo lan jakin batzuen berehalako zuzendaritza; horretarako, kontratistak obrako langileak eta materiala jarri beharko ditu bere esku.
- Egindako obrak kontratistari egiaztatzea, kontratuko dokumentuetan xedatutakoaren arabera.
- Harreretan parte hartzea eta obren likidazioa idaztea, ezarritako legezko arauen arabera.

6.2 Zuzendari fakultatiboaren lanen deskribapena

Atal honetan, kontratuaren fase bakoitzean zuzendari fakultatiboak bere gain hartu beharreko lanak zehazten dira.
Atal honetan zehaztutako lan eta txosten guztiak agiri honetan edo kontratuaren arduradunak ezarritako epe eta baldintzetan egingo dira.
Kontratuaren arduradunak txostenak aztertuko ditu, eta egokitzat jotzen dituen alderdiak osatzeko agindu ahal izango du, edo, bestela, txostenak errepikatzeko, ezarritako irizpideei jarraituz, onartzea merezi duen arte.

6.2.1 Obra hasi aurretik

- **Proiektua aztertzea** Obrak hasi aurretik egiaztatuko da eraikuntza-proiektuan kontuan hartu direla lege- edo erregelamendu-mailako xedapen orokorrak eta definitutako obrei aplikatu beharreko araudi teknikoa. Zuzendari fakultatiboak txosten bat idatziko du **"proiektuaren auditoretza-txostena"** izenburupean, eta bertan jasoko ditu egon daitezkeen omisioak edo anomaliak.
- **Hondakinak kudeatzeko plana onartzea:** Eraikuntza- eta eraispen-obretako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen 105/2008 Errege Dekretuaren eta 112/2012 Dekretuaren arabera, obra egiten duen pertsona fisikoak edo juridikoak eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko plana aurkeztu beharko dio jabeari (112/2012 Dekretuaren 7. artikulua). Plan horrek kudeaketa-azterketaren alderdi guztiak zehaztuko ditu. Planak zuzendari fakultatiboaren onespena eta jabetzaren onarpena beharko ditu.
- **Kalitatea kontrolatzeko planaren azterketa:** Obrak hasi aurretik, eraikuntza-proiektuaren *Kalitatea Kontrolatzeko Planak Eraikuntzaren* Kalitatea Kontrolatzea arautzen duen urriaren 22ko 238/1996 Dekretuaren 5. artikuluko 3. atalean zehaztutako edukia jasotzen duela egiaztatuko da.

  Zuzendari fakultatiboak txosten bat idatziko du **"kalitatea Kontrolatzeko Planaren auditoretza-txostena"** izenburupean, eta bertan jasoko ditu egon daitezkeen omisioak edo anomaliak.

  Txosten horretan bertan, hala badagokio, antzemandako omisio edo anomalien zuzenketak egingo dira, eta honako eduki honekin osatuko da:

- Kontrol geometriko, kualitatibo eta kuantitatiboko planak ezartzea, Kontratistaren obra-planaren arabera, eta obra-unitate bakoitzaren eta hura osatzen duten materialen kontrolean jarraitu beharreko sistematika azaltzea.

Txostena Kalitatea Kontrolatzeko Planari erantsiko zaio, eta dokumentu beraren parte izango da.

Txostena idatzi ondoren, obra egiten hasi ondoren, zuzendari fakultatiboak aurrekonturik gabeko partiden saiakuntza berriak egiteko beharra ikusten badu, saiakuntza horiek egiteko kontratuaren arduradunaren oniritzia beharko da.

- **Obra-planaren azterketa:** Obrak hasi aurretik, kontratistak proposatutako obra-planaren bideragarritasuna egiaztatuko da, eta **"Obra-planaren bideragarritasun-txostena"** izeneko txosten batean jasoko da.

  Kontratuaren arduradunak komenigarritzat jotzen badu, zuzendari fakultatiboak kontratistak aurkeztutakoaz bestelako lan-programa bat egingo du, kontratuaren arduradunak ezarritako jarraibideen arabera, eta, egokitzat jotzen badu, ezartzen dituen programazio-teknikak erabiliko ditu (PERT, C.P.M., etab.).

6.2.2 Obraren hasieran

- **Zuinketa egiaztatzeko akta:** Zuinketa egiaztatzeko aktarekin hasiko da obra-kontratua gauzatzen. Horretarako, obra-kontratua formalizatu eta gehienez ere hilabeteko epean, zuinketa egiaztatuko da kontratistaren, kontratuaren arduradunaren eta zuzendari fakultatiboaren aurrean. Emaitzen akta alderdi interesdunek sinatuko dute, eta ale bat kontratua egin zuen organoari bidaliko zaio.

  Zuzendari fakultatiboak **aktan jaso behar den dokumentazioa prestatuko du**.

6.2.3 Obra egin bitartean

- Administrazio-klausulen agirian eta proiektuan jasotako kontratu-baldintzak betetzeko jarraibide teknikoak kontratistari helaraztea, haien interpretazio teknikoaren arabera. Jarraibide horiek hitzezkoak direnean, idatziz berretsi beharko dira, ahalik eta eperik laburrenean, *agindu- eta bertaratze-liburuan* alderdientzat lotesleak izan daitezen.
- Hala badagokio, proiektuaren dokumentazio osagarria, memoriak, planoak, justifikazio-eranskinak eta zehaztapen teknikoak egitea, obra behar bezala gauzatzeko beharrezko xehetasun-mailarekin.
- Lanen kontrola, zaintza eta jarraipena kalitatea bermatzeko behar den maiztasunarekin.
- Zuzendari fakultatiboak bere kabuz egiaztatuko du obren zuinketa eta, oro har, proiektuaren geometria-kasuak. Horretarako, topografiako ekipoak izango ditu, eskatutako perdoien araberako zehaztasunez.
- Kalitate-kontroleko plana koordinatzea, kontrolatzea eta gainbegiratzea. Obra hasi ondoren, ***"Kalitatea Kontrolatzeko Liburua"*** egingo du, Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzea arautzen duen urriaren 22ko 238/1996 Dekretuaren 9. artikuluaren 2. paragrafoan adierazitako edukiaren arabera. Nolanahi ere, saiakuntza bakoitzaren emaitzak eta hori egin duen laborategiaren identifikazioa jaso beharko ditu, bai eta horiek dituzten materialen jatorri-ziurtagiriak, markak edo kalitate-zigiluak ere.
- Obra-kontratuan obrak gauzatzeko ezarritako epe osoaren eta partzialaren jarraipena egitea, eta atzerapenik izanez gero egin beharreko jarduketak egitea: zehapen-proposamenak, atzerapena kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik gertatu den zehazten duen txostena egitea, etab.
- Zuzendari fakultatiboak hilero egingo ditu, dagokion hilabetearen ondorengo lehenengo bost egunetan, aldi horretan proiektuaren arabera gauzatutako obra jasotzen duten ziurtagiriak. Ziurtagiriak epe berean bidali beharko zaizkio kontratuaren arduradunari, onar ditzan.
- Hala badagokio, proiektuaren aldaketaren idazketa eta onespen teknikoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 242. artikuluaren 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

- Hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 242. artikuluaren 5. zenbakian ezarritakoarekin bat etorriz, proposamen tekniko arrazoitu bat egitea, aldaketaren gutxi gorabeherako zenbatekoa, egin beharreko obren oinarrizko deskribapena eta aldaketa 203. artikuluaren 2. zenbakian aurreikusitako kasuren batean dagoelako justifikazioa jasoko dituena.
- Hondakinak kudeatzeko plana betetzeari buruzko jarraipena egitea, besteak beste, hondakinak IKS-eeM sistemaren bidez lekualdatzeari buruzko dokumentazioa kontrolatuz.
- Eragindako erakunde, enpresa edo partikularren aurrean zerbitzuak birjartzeari, kontsultak egiteari eta baimenak izapidetzeari buruzko kudeaketak.

6.2.4 Obra amaitu ondoren

- Obren harreran parte hartzea, obrak amaitzean, Udalak izendatutako teknikari batekin eta obren kontratistarekin batera.
  - Akta positiboa: obren onarpen-akta idaztea, baldin eta obrak egoera onean badaude eta aurreikusitako aginduak betetzen badituzte. Neurketa-aktarako data bat ezartzea, gehienez ere hilabeteko epean.
  - Akta negatiboa: obrak hartzeko moduan ez badaude, dagokion akta idatzi, antzemandako akatsak adierazi eta beharrezko jarraibideak zehaztu eta zuzentzeko epea ezarri.
- Obra osoaren neurketa orokorra egitea kontratistaren aurrean, eta dagokion akta egitea. Neurketa egiteko, obraren amaierako dokumentazioa hartuko da erreferentziatzat, zeina aldez aurretik xedatu beharko baita.
- Neurketa orokorraren akta sinatu eta hurrengo hamar egunen barruan, zuzendari fakultatiboak azken ziurtagiria egin eta izapidetuko du.
- Berme-epea bete aurreko hamabost egunen barruan, obraren zuzendari teknikoak obren egoerari buruzko txostena idaztea, ofizioz edo kontratistak eskatuta. Txostena aldekoa ez bada, eraikitakoa behar bezala konpontzeko jarraibide egokiak ematea kontratistari, eta horretarako epe bat ezartzea.
- Berme-epea igarotakoan, txostena aldekoa bada edo, hala badagokio, eraikitakoa zuzendu bada, zuzendari fakultatiboak hilabeteko epean egingo du benetan gauzatutakoaren likidazio-proposamena, eta kontratuan ezarritako baldintza ekonomikoak hartuko ditu baloraziorako oinarritzat.

- Zuzendari fakultatiboak, obrak amaitzean, azken ziurtagiria emango du, baldintza teknikoen agiri honetako 8. atalean eskatzen den dokumentazio osagarriarekin batera.

6.2.5 Obra-kontratua suntsiaraztea

- Obra-kontratua suntsiarazten bada, proiektuaren arabera egindako obrak egiaztatzea, neurtzea eta likidatzea, kontratistaren aldeko edo kontrako saldo egokiak finkatuta.

6.3 Obraren kontrol geometrikoa

Obrak egiten diren bitartean, obra-zuzendaritzak obren kontrol geometrikoa egingo du, eta kontrol hori dagozkion txostenetan islatuko da. Horretarako, topografiako ekipoak izango ditu, eskatutako perdoien araberako zehaztasunez. Kontrol geometrikoa kontratuaren arduradunak beharrezkotzat jotzen dituen unitateetan egingo da, eta, oro har, honako hauei eragingo die:

- Lurraren aurretiazko egoera.
- Hondeaketa-fondoa
- Zabalgunea
- Oinarria
- Bide-zorua
- Zintarria

6.4 Obra-bilerak eta -txostenak

Zuzendari fakultatiboaren taldeak presentzia iraunkorra izango du obran, eta astean behin gutxienez bilera bat egingo da. Bilera horretan, gutxienez, zuzendari fakultatiboa eta kontratistaren ordezkaria egongo dira. Bilera horretan, egiten ari diren eta egingo diren lanak ikuskatuko dira, eta kontuan hartu beharreko jarraibide eta irizpide teknikoak adostu eta ezarriko dira. Bilera horren akta egingo du zuzendari fakultatiboak, eta hurrengo astean kopia bat bidaliko die bertaratutako guztiei eta kontratuaren arduradunari.

Hilean behin, zuzendari fakultatiboak txosten egituratu bat egingo du, obraren kapituluen arabera, eta eduki honekin:

- Deskribapen-memoria, laburbilduta eta ikusteko moduan, lanen martxaren alderdi nagusiak laburbiltzen dituena.
- Obra-unitateak gauzatzeko epearen jarraipena egitea, aurreikusitako programazioarekiko hilabetez hilabete izandako desbideratze partzialak eta metatuak adierazita.
- Sortzen diren anomaliak, bereziki espezifikazioen arabera material batean kalitate falta dagoela adieraz dezaketenak, egokitzat jotzen dituen neurri zuzentzaileak proposatuz.

7 BALIABIDEEN ZUZKIDURA. ZUZENDARI FAKULTATIBOAREN LANTALDEA

Atal honetan zehazten da esleipendunak zer baliabide izango dituen Baldintza Teknikoen Agiri honetan zehaztutako zerbitzua emateko. Kontratatzen den zerbitzua ez da langileen eta ekipoen prestazio bat, baizik eta zuzendaritza tekniko bat, eta, une jakin batean, behar bezala egin ahal izateko aurreikusitako oinarrizko baliabideak baino gehiago eska ditzake.

Esleipendunak obraren zuzendaritzarako bideratuko duen taldea honako hauek osatuko dute, gutxienez:

- **Zuzendari fakultatiboa.** Zuzendari fakultatiboaren figurarako, honako aukera hauetako bat proposatu ahal izango da, prestakuntza akademikoaren arabera:
  - Bide, ubide eta portuetako ingeniaria
    edo
  - Arkitektoa
    o
  - Herrilanetako Ingeniari Teknikoa edo Ingeniari Zibila
  - Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio-proiektuan definitutako obretan zuzendari fakultatiboaren funtzioa bere gain hartzeko titulazio akademiko espezifikoak gaitutako eskuduntzak eta eskumenak dituzten beste lanbide batzuk.
- **Topografiako ekipoa:** Topografiako ingeniari teknikoa
- **Dokumentazio grafikoa ekoizteko ekipoa:** delineatzailea

Zerbitzua hasi baino lehen, esleipendunak idatziz jakinaraziko du proposatutako diziplina anitzeko taldearen osaera, eta taldearen eta kide bakoitzaren prestakuntza akademikoa eta esperientzia egiaztatuko ditu, udaleko zerbitzu teknikoek balora dezaten. Esleipendunak eskatzen zaizkion aldaketak egin beharko ditu taldean.

8 OBRA-AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA

Zuzendari fakultatiboak dokumentazio hau bildu eta prestatu beharko du:

Obrak jaso aurretik:

- Azalera urbanizatzeko oinplanoaren plano kotatua.
- Zerbitzu-sareen oinplanoko plano kotatuak.
- Obran parte hartuko duten enpresa azpikontratisten zerrenda
- Relación de fabricantes y suministradores.
- Fabrikatzaileen eta hornitzaileen zerrenda.
- Kalitatea Kontrolatzeko Liburua
- Hondakinak kudeatzeko planaren jarraipen-txostena
- Argazki-dokumentazioa, obra-kapituluen arabera ordenatuta.

Obren harreran:

- Obra-harreraren akta

Berme-epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean:

- Aldeko txostena
- Obra-amaierako ziurtagiria, Elkargo Ofizialaren oniritziarekin
- Obraren amaierako ziurtagiria
- Likidazioa Elkargo Ofizialaren oniritziarekin

Dokumentazioa udalari aurkeztuko zaio, bai paperean, DIN formatuan, bai euskarri informatikoan, CDan, programetan eta lizitazio-proiektuaren bertsio informatikoetan, bai Tolosako Udalak erabili ohi dituenetan.

Paperezko dokumentazioaren 4 ale aurkeztuko dira, koadernatuta.

II. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA. ZENBAKITAN EDO EHUNEKOTAN BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

1 MEMORIA TEKNIKOA

Enpresa lizitatzaileak "memoria teknikoa" izeneko dokumentu bat aurkeztu beharko du, behar bezala zenbakituta eta dagokion aurkibidearekin.

Memoria horretan, zifretan edo ehunekoetan baloratu ezin diren irizpideen arabera baloratu behar diren alderdi teknikoak zehaztuko dira. Memoriak eduki nahikoa izan beharko du eman beharreko zerbitzuaren egokitasuna baloratzeko.

Gehienez DIN-A4ren 10 orri izan behar ditu, aurkibidea eta eranskinak barne, eta DIN-A4ren edozein formatutako plano bat, tolestu ondoren.

Ez dira baloratuko beren edukia eta baldintza teknikoen agiri honetan adierazitako atalen hurrenkera osorik errespetatzen ez duten memoria teknikoak.

Aurkeztutako memoria teknikoak adierazitako orri-kopurua gainditzen badu, 0 puntu emango zaizkio atal honetako balorazio-irizpideari.

Dokumentua honako eskema eta atal hauen arabera egin beharko da:

1.1 Eraikuntza Proiektuaren Azterlana

Lizitatzaileak frogatu beharko du proiektua osatzen duten dokumentuen azterketa egin duela. Horretarako, obren garapena eta eraikuntza-prozesua deskribatzen dituen memoria bat idatziko du, eta xehetasun handiagoz azpimarratuko ditu bere ustez garrantzitsuenak diren obra-unitateak. Deskripzioa lizitatzaileak onuragarritzat jotzen duen lanen sekuentziaren edo ordenaren arabera egingo da, eta ez da beharrezkoa izango sekuentzia edo ordena hori proiektuan definitutakoarekin bat etortzea.

1.2 Proposamen metodologikoaren deskribapena

- Agiri honetan zehaztutako prestazioa behar bezala emateko egin beharreko lanen metodologia. Lan-plana.
- Kalitate-kontrola ziurtatzeko neurriei buruzko prozedura: lantaldeko kideen zereginak deskribatzea, bereziki kontrol-puntuen identifikaziora eta jarraipenera bideratutakoak, noizbehinkako eta ausazko ikuskapenak, eta maiztasuna.

1.3 Ingurumen-irizpideak sartzea proiektua exekutatzean

Atal honetan, obrak ingurumenean eragin txikiagoa izan dezan, hondakinen kudeaketa optimizatzea helburu duten proposamenak baloratuko dira, hala nola:

- Hondakinak prebenitzeko edo obran ahalik eta hondakin gutxien sortzeko neurriak.
- Obran edo kanpoan balorizatzeko egokiak diren hondakinak identifikatzeko neurriak.
- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa egokia ziurtatzeko neurriak.

2. ESLEITUTAKO LANTALDEA

Kontratua gauzatzeko pertsona-taldea nola antolatuko den deskribatzea:

- Obrari esleitutako giza baliabideen zerrenda deskribatzailea, ZUZENDARI FAKULTATIBOARENA IZAN EZIK, lanak egiteko esperientzia berariaz adierazita, bereziki kontratuaren xedeari dagokionez.

(Ezin izango da ezer esan zuzendari fakultatiboaren eginkizunak bere gain hartzeko proposatutako pertsonaren lanbide-esperientziari buruz. Esperientzia hori C gutun-azalean sartu beharko da, proposamen ekonomikoarekin batera).

III. DOCUMENTACIÓN TÉCNICA. CRITERIOS DE VALORABLES EN CIFRAS O PORCENTAJES

1 EXPERIENCIA DEL DIRECTOR FACULTATIVO

El licitador deberá acreditar mediante la documentación requerida en el PCA para su valoración mediante criterios valorables en cifras o porcentaje:

- La Titulación académica del Director de Obra y experiencia en obras de urbanización de cuantía igual o superior al presupuesto de licitación.

Esta documentación se incluirá en el sobre C, junto con la proposición económica conforme a lo especificado en el Pliego de Condiciones Técnicas Administrativas.

En Tolosa, 3 de Marzo de 2020

Josu Orbegozo
Técnico municipal